

Mendizaleak eta xendazaleak

Ni ez naiz mendizalea. Niri tontorrek ez zaizkit interesatzen". Uda honetan Mont Blancetako Bira egiten ari nintzela entzundako komentario honek harritu egiten zidan. Zera gertatu zitzaigun, gurekin topo egiten zuten xendazale gehienek beren buruak "xendazale"-tzat izaten zituzten zalantzarik gabe: ez ziren mendizaleak eta, egitez, beraietariko askok ez zuen ia sekula mendi garrantzitsu batera igon. Eta horrela, hasi nintzen xendazalearen ezaugarriak zehaztu nahian, eta konkretuki Goi Mendiko xendazalearenak, zeinak egun batzuetako ibilaldia exigitzen baitu.

Zer esanik, badu alpinismo orokorretik desberdintzen duen litsik baina, egia esan, ez dakit lits horiek anekdotikoak diren edo benetako desberdintasunik suposatzen duten.

Bistakoa denez, azken helburua desberdina da. Mendizaleentzat helburua tontorra da eta sarri hau horrela izaten da ezen, tontor handi edo zail bat lortu ez bada, mendizaleak ezer ere egin ez duela sentitzen baitu. Xendazalearentzat helburua ibilbide osoa burutzean datza, egun bakoitzeko etapa, baina funtsean gozamenaren bidean bertan bilatzen da batez ere eta, horrela, paisaiak garrantzi handiagoa hartzen du.

Bidezidorra fideki segitu beharra dago eta horretarako topogidari, norberak barneratu eta gero, egin behar zaio jaramon. Eguneko gogortasuna lepoaren gainditzea izango da, gorantz eta batez ere beherantz. Nekea, aldean eraman beharko den zamak neurtuko du, eta hurrengo gomendioa sakratua izaten da: "Motxilan, guztiz beharrezkoa sartu soilik... eta gero kendu erdia". Arriskua tipulak izaten dira, ardura ordutegien egunerotasuna eta inkognita, aurreikuspen meteorologikoa.

Mendi-jarduera orok bezala, gozamen handiak ematen ditu, baina alde batzuk bereziki indartzen ditu. Aisatu egiten du besteekiko harremanak sakonkiago bizi ditzagun, batez ere aterpetako kointzidentzian izaten den sozialpenean. Apropoza da senitatean edo lagunartean egiteko. Gainera, xendazaletasuna era askotara egin daiteke, abiadurari dagokionez (geldiro joaten direnak eta maratoizaleak), ordutegiari dagokionez (goizean gozetik altxatzen direnak eta besteak) edo antolaketari dagokionez (garbizaleak, garraio publikoaz baliatzen direnak, txirindulariak, pakete turistikoan joaten direnak,....). Eta beste dimentsio bat ere onartzen du, zeina batzutan baldintza eta beste batzutan sari izaten den: "erromesaren mistika", bidea arrazoi emozional edo transzendentalengatik jarraitzea.

Badago egon "xenda handirik", mendizerra askotan sortuak eta ia herri guztietan ere. Ospetsuenetarikoen artean batzuk aipatu behar badira, horra hor: Zelanda Berriko "Milford Track" delakoa (munduko politena omen dena), Himalaiakoak, Andetakoak edo Alpeetakoak, Reunión irlakoak, Korsikakoak eta Pirineoko GR-10 eta GR-11ak. Pyrenaicantz kontatu dira jadanik eurretari dozena bat baino gehiagori buruzko esperientziak. Gero eta sarriagoak suertatzen ari dira gure artean. Nazioarteko arakunde bat dago, EXF delakoa (Europako Xendazale-Federakundea), zeinak 50 elkarte biltzen baititu (horietariko bat EMFa delarik), 28 herrialde desberdinetakoak eta irail honetan bertan Val de Aráñen bere 33. Kongresu antolatzen duen. Zaletasun geldiezina bilakatu da zeren, joan den mendean mundu osoan zehar ibili zen himalaiazale britainiar Bill Tilmanen esaldi zuzen batek zioen bezala, azken finean esploratzeraz joateko behar duzun gauza bakarra zera da, "botak jantzi eta atera".

Montañeros y senderistas

YO no soy montañero. A mí las cumbres no me interesan". Me sorprendía el comentario oído este verano en el Tour del Mont Blanc. Me he encontrado con que la mayor parte de los senderistas que coincidían con nosotros se identificaban muy claramente como "senderistas": ellos no eran montañeros y, de hecho, muchos de ellos no habían subido prácticamente nunca a ninguna cumbre grande. Me picó la curiosidad por tratar de detectar las características del senderismo, y concretamente del senderismo de Alta Montaña, que requiere varios días de marcha.

Desde luego tiene matices que le diferencian del alpinismo general pero, francamente, no sé si son anecdóticos o suponen diferencias de fondo.

Obviamente el objetivo final es distinto. Para los alpinistas el objetivo es la cumbre y en muchos casos lo es de tal manera que, si no ha hecho cumbre, más o menos alta o difícil, el alpinista siente que no ha hecho nada. Para el senderista el objetivo es conseguir el recorrido completo, la etapa de cada día, pero en definitiva el disfrute se busca sobre todo en el propio camino y, como tal, el paisaje adquiere mucha más importancia.

Se trata de seguir fielmente el sendero, para lo que hay que atender, después de haberla interiorizado, a la topografía. La dureza del día será la superación, hacia arriba y sobre todo hacia abajo, del collado. El sacrificio vendrá medido por el peso que hay que transportar, y es sagrada la recomendación de "Mete en la mochila sólo lo imprescindible ... y luego quita la mitad". El peligro son las ampollas, la preocupación es la rutina de los horarios y la incógnita, la previsión meteorológica.

Ofrece grandes satisfacciones, como toda actividad montañera, pero refuerza algunos aspectos. Permite vivir con más intensidad las relaciones con los demás, sobre todo socializando en la coincidencia en los refugios. Es muy propensa a ser realizada en familia, en grupo de amigos. Posibilita muchas alternativas de ejecución en cuanto a velocidad (entre los que van despacio y los maratonianos), horario (los madrugadores y los otros) y organización (los puristas, los que se ayudan de transportes públicos, los ciclistas, los que van con un paquete turístico ...). E incluso admite otra dimensión, que en unos casos es un requisito y en otros casos es un premio: es "la mística del peregrino", el seguir el camino por motivos emocionales o trascendentales.

Ciertamente hay "grandes senderos" creados en muchas cordilleras y en casi todos los países. Por citar unos pocos de los más famosos: el "Milford Track" de Nueva Zelanda (que presume de ser el más bonito del mundo), los del Himalaya, los de los Andes y los de Alpes, la isla de Reunión, Córcega, y los GR10 y GR 11 del Pirineo. En Pyrenaica se han contado ya experiencias en más de media docena de ellos. Cada vez están siendo más frecuentes entre nosotros. Existe una organización internacional, la ERA (Federación Europea de Senderismo), que agrupa a 50 asociaciones (entre las que está la EMF), de 28 países distintos y que este mismo mes de septiembre organiza en el Val de Arán su 33er Congreso. Es una afición imparable porque, en frase feliz de Bill Tilman, el famoso himalayista británico, que recorrió todo el mundo en el siglo pasado, lo único que necesitas al final, para ir de exploración, "es ponerte las botas y salir".

Txomin Uriarte